

Honen aurretik doan Gobernu Batzordearen Erabakian aurreikusitako Larrialdiko Zerrendak antolatuta edukitzearren, izan ere 2020ko urtarrilaren 1ean sartuko baita indarrean, Gobernu Batzordeak, aurrez eztabaidaturik eta aho batez, ondokoak sortzea erabaki du:

- **Larrialdietarako zerrendak.** Atxilotuari Laguntzeko Txanda bakoitzarentzat larrialdiko zerrenda bereziak sortu dira Donostiako barruti judizialean, Irungo barruti judizialean, Bergarako barruti judizialean, Tolosako barruti judizialean, Eibarko barruti judizialean eta Azpeitiko barruti judizialean, Adingabe, Atzerritar eta Genero Indarkeria, Etxeko Indarkeria eta Sexu Erasoan arloetan, Irungo, Donostiako eta Tolosako barruti judizialean, eta Penal Euskaren arloan Eibar, Bergara eta Azpeitiko barruti judizialean, uko egindako eta onartutako Guardiako Laguntzei, justifikaziorik gabe egin gabe geratu direnei, alta berriei, amatasun, jaiotza, gaixotasun larri edo luzearen bajagatik edo antzeko arrazoiengatik sortutakoei erantzutearren, baina dena den Gobernu Batzordeak aurrez onartu beharko du eskaera.

Larrialdiko zerrenda horietako edonork arreta eskaini beharko du Elkargoaren iritziz beharrezkoa den unean, eta arintasunez eta azkartasunez joan beharko du edozein Laguntza zerbitzu betetzera, baita ustekabean eta salbuespen modura gerta litezkeen gainerako kasuetan ere.

Larrialdiko zerrendak arreta eskaintzen duen ohiko zerrendan egonik bertako partaide izateko borondatea erakusten duten abokatuek osatuko dituzte hasierako larrialdiko zerrendak. Horri begira, Elkargoaren bulegoetan aurkeztu beharko dute dagokion eskabidea. Idazkari Nagusi Teknikoaren ardura da hori egiteko epea iragartzea.

Lehenengo larrialdiko zerrendak finkatu ondoren, bertan sartzea eskatu ez duen edozein abokatuk, baldin eta larrialdiko zerrendak arreta eskaintzen dion ohiko zerrendan ageri bada, elkargoaren bulegoetan dagokion eskabidea aurkeztuz egin ahal izango du hori, eta bere horretan eutsiko zaio sartutako hurrenkerari.

Lehenengo larrialdi-zerrendak finkatu ondoren, alta ematen duten eta larrialdiko zerrendak arreta eskaintzen duen ohiko zerrendako partaide izateko betebeharrak eta baldintzak betetzen dituzten abokatu guztiak zerrenda horietako partaide izan daitezke, aurrez eskabidea egin eta sartu nahi duten horretarako izendatzen badituzte.

Larrialdiko zerrendetan sartzen direnek erabateko lan-prestutasuna eduki beharko dute, deituak izan diren guardietan arreta eskaini ahal izateko.

Txanda eta espezialitate bakoitzari dagozkion Larrialdiko zerrendak eta horien bilakaera ikusgai egongo dira Elkargoaren egoitzan eta webgunearen eremu pribatuan.

Edozein larrialdi-zerrendako Guardia Zerbitzuaren lehen izendapena Idazkari Nagusi Teknikoak horretarako deitutako zozketa publiko baten bidez egingo da, eta horri begira, ezarritako epearen barruan Txandetako eta beren espezialitateetako zerrendetako edozeinetan partaide izateko gogoia agertu duten abokatuak alfabetoz eta zenbakiz ordenatuko dituzte, eskaera egin duten unea edozein izanik ere. Zerrendetan lehenengo agertuko den abokatuari dagokion zenbakia erabakiko du zorteak, gero laguntzak izendatu ahal izateko, eta gainerakoei hurrenez hurreneko zenbakia emango zaie, eskaera guztiak estali arte.

Hasierako zerrendak osatu ondoren, bertan sartzea eskatu duten eta hitzartutako baldintzak betetzen dituzten abokatuak, onartuz gero, larrialdi-zerrendako partaide izango dira, dagokien hurrenkera-zenbakiarekin.

Horrela justifikatzen duen arrazoirik egon ezean, larrialdiko dei bati erantzuten ez bazaio, baja emango zaio zerrenda horretan.

Idazkari Nagusi Tekniko/Gerente Sergio Guimerans Ausejo jaunari ahalmena ematen zaio Erabaki hau gauzatu dezan.

Hitzarmen hori argitu, osatu edo, hala egokituz gero, aldatu egin daiteke, horren beharra ikusiz gero.

Erabaki hau Jarduleen Errolda osatzen duten abokatu guztiei jakinaraztea.

Erabaki hau 2019ko abenduaren 2an sartuko da indarrean.

Larrialdiko Zerrendak: [IZEN EMATEAK](#)